

PARTE-HARTZE BIDEZKO AURREKONTUA 2019

Zer da parte-hartze bidezko aurrekontua?

Bilboko parte-hartze bidezko aurrekontua bilbotar guztientzat zabalik dagoen prozesua da, Udalaren aurrekontuaren zati bat zertan erabil daitekeen proposatu dezaten.

Bilboko Udalak aurrekontuko 14 milioi gordeko ditu parte-hartze bidezko aurrekontuetarako. Diru-kopuru hori bi zatitan dago banatuta:

- ▶ **Auzokide Planean 12 milioi euro** sartuko dira. Auzokide Planaren bidez, bilbotarrek eta Bilboko eragile politikoek eta sozialek finkatzen dituzte auzoa hobetzeko egin beharreko obren eta lanen lehentasunak, barrutietako kontseiluen bitartez. 2016-2019ko Auzokide Planarekin 48 milioi euroko inbertsioa egingo da lau urtetan, hau da, 1,5 milioi euro barrutiko eta urteko (inbertsioen urteko aurrekontuaren %19). 2016-2019ko Auzokide Plana dagoeneko onartuta dago 8 barrutietako kontseiluetan eta Udalaren web orrian ikus daiteke.
- ▶ **2 milioi euro**, Udalaren aurrekontuaren proiektua onartu aurretik, urtero egingo den prozesu irekian jasotako proposamenetarako.

Dokumentu honetan agertzen diren azalpen guztiak prozesu hau zertan den azaltzeko egiten dira. Izan ere, prozesua 2019ko aurrekontua egiteko erabiliko da.

Zelako prozesua bete behar da proposamenak sartzeko aurrekontuen proiektuan? Prozesuaren azalpen zehatza.

Bilbotarrek euren proposamenak aurkezteko prozesu ireki berri hau 2018ko apirilaren 19an hasiko da eta 4 fase izango ditu:

Proposamenak jasotzea apirilaren 19tik maiatzaren 10era arte

Garrantzizko eta interes orokorreko proposamenak eta hiri edo barruti mailakoak aurkeztu ahal izango dira. Proposamenok Udalaren eskumeneko zein-nahi arlotakoak izan daitezke, baina, ahal dela, barrutiak hobetzeko obrei eta lanei buruzkoak ez direnak; izan ere, obra horiek euren parte-hartze bidezko prozesua eta aurrekontua baitituzte (Auzokide Plana).



Proposamenaren kostua ezingo da izan 500.000 euro baino handiagoa, hau da, parte-hartze bidezko aurrekonturako den kopuru osoaren %25a baino handiagoa.

Jasotako proposamenak www.bilbao.eus-en argitaratzea ekainaren 1a

Jasotako proposamen guztiak argitaratuko dira iraingarriak eta diskriminatzaileak kenduta.



Sailek proposamenak aztertzea eta lehentasuna finkatzea ekainaren 2tik Gobernu Batzordeak aurrekontu proiektua onartu arte

Udaleko sailek, aurkeztutako proposamenen edukia aztertuko dute, ikuspegi juridiko eta teknikitik. Proposamenen balorazio ekonomikoa egin eta legezkoak eta bideragarriak direnei (kalkulu ekonomikoak finkatutako gehieneko kopurua gainditzen ez badute) lehentasuna emango zaie parte-hartze bidezko aurrekontuko 2 milioi arte.



Lehentasunezko proposamenak aurrekontu proiektuan sartzea eta web orrian zabaltzea

Lehentasuna duten proposamenak Udalaren 2019ko aurrekontu proiektuan sartuko dira. Proiektua web orrian argitaratuko da, Gobernu Batzordeak onartzen duenean.



Udalak proposamen guztien zerrenda argitaratuko du, adierazita zeintzuk pasatu duten azterketa eta balorazio teknikoaren fasea eta zeintzuk sartu diren 2019ko aurrekontuen proiektuan eta zeintzuk ez.

Nortzuek har dezakete parte Udalaren aurrekontuaren proiekturako proposamenak bidaltzeko?

- ▶ Bilbon erroldatutako 16 urtetik gorako pertsonak.



- ▶ Bilboko Udalaren herritarren partaidetzako entitateen erregistroan inskribatutako erakundeak.



- ▶ Edozein elkartek, fundaziok, sindikatuk, enpresa-elkartek, elkargo profesionalek, zuzenbide publikoko korporaziok edo bestelako edozein entitatek, baldin eta nortasun juridikorik badu, ordenamendu juridikoaren arabera.



Azken kasu bietan, eskatzaileak Bilbon erroldatutako 16 urtetik gorako pertsona izan behar du.

Zelan aurkez daitezke Udalaren aurrekontuaren proiekturako proposamenak?

Udalaren web orriko "Parte-hartze bidezko aurrekontuak" izeneko atalean dagoen inprimakiaren bitartez edota Udal Erregistroaren eta 8 barrutietako Herri-tarrei Laguntzeko Bulegoen bidez, hala nola Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluetan zehaztutako moduetako batean.



Jasotako proposamen bakoitzari identifikazio-kode bat jarriko zaio; hartara, proposamena aurkeztu duenak haren jarraipena egin ahal izango du.

Zein arlotako proposamenak aurkez daitezke?

Udalaren eskumenekoak diren arlo guztietakoak:

- ▶ Garapen ekonomikoa eta gobernu ona.

- ▶ Gizarte-politikak.
- ▶ Kultur politikak, euskara, hezkuntza, gazteria eta kirola.
- ▶ Herritarren segurtasuna.
- ▶ Mugikortasun-politikak, ingurumena, etxebizitza eta garapen osasungarria.
- ▶ Hiri jasangarritasunaren eta garapenerako politikak.

Kontuan hartu behar da, haatik, barrutiak hobetzeko obrek eta lanek badutela euren parte-hartze bidezko aurrekontuaren prozesua, "Auzokide Plana" izenekoa, hain zuzen. Hortaz, ahal dela, proposamenak udalaren gainerako esparruekin lotutakoak izango dira.

Proposamenetan, gainera, ezingo da jaso halako pertsona, erakunde edo talde jakin batek burutu behar duenik proposatutakoa; izan ere, lehentasuna ematen bazaie eta Udalaren aurrekontuen proiektuan sartzen badira, dagokion udal sailak gestionatu eta tramitatuko ditu proposamenak.

Zeintzuk dira Udalaren aurrekontuaren proiekturako proposamenek bete beharreko baldintzak?

Oro har, Udaleko teknikariek honako hauek aztertuko dituzte proposamenak baliagarriak diren ala ez erabakitzeko:

- ▶ **Udalaren eskumenekoa da?**  Proposamenak Udalaren eskumenekoak izan behar du. Udalak jarduera batzuk egin ditzake, baina beste batzuk, ostera, beste administrazio batzuen mende daude.
- ▶ **Legezkoa da?**  Proposamena aurrera eramatea

eragozten duen arautegirik dagoen edo guztion onuraren aurka doan edota eduki iraingarrikerik edo diskriminatzailekerik duen aztertuko da.

- ▶ **Garrantzizkoa eta interes orokorrekoa da?**  Proposamenak hiri osoaren, barrutiaren edo kolektibo handi baten onerako izan behar du, norbanakoen interesen aldekoa barik.
- ▶ **Bideragarria da?** Proposamena alde teknikotik bideragarria den eta oztopatuko duen eragozpenik dagoen aztertuko da. 
- ▶ **Zenbat balio du?** Proposamenaren kostua kalkulatzeko saiatu eta baztertu egingo dira parte-hartze bidezko aurrekonturako den kopuru osoaren %25a gainditzen duten proposamenak. 

Zein informazio eman behar dut proposamenean?

Ez da beharrezkoa azalpen tekniko korapilatsurik egitea. Zeure berbak erabilia azaldu dezakezu. Hala ere, zenbat eta argiago azalduta egon, errazagoa izango da Udalarentzat ebaluatzea.

Gogoratu proposamena egitean, zeure datu pertsonalak ez eze, ordezkatzeko duzun talde edo erakundearenak ere (kasua bada) eman behar dituzula. Honako hauek, hain zuzen:

- ▶ **Proposamenaren izena** (azalpen laburra, titulua).
- ▶ **Proposamenaren azalpena**, zergatik aurkeztu duzun eta zeintzuk diren helburuak adierazita, besteak beste.
- ▶ **Gutxi gorabeherako kostua** (ez da derri-gorrezkoa).

Nahi baduzu, dokumentuak ere erantsi ditzakezu.

Urte osoan aurkeztu ahal zaizkio proposamenak Udalaren aurrekontuaren proiektuari?

Ez. Urtean behin eta epe jakinean bakarrik aurkez daitezke proposamenak; betiere, Udalaren aurrekontuaren proiektua egin eta Gobernu Batzordeak onartu aurretik.

Urtean zehar, ostera, herritarrek Udalera jo dezakete iradokizunak eta ekarpenak egiteko, Bilbon dauden komunikazio eta partaidetzarako bideak erabilia:

- ▶ Barrutiko kontseiluen bileretan parte hartuta.
 
- ▶ Auzokide Planari buruzko iradokizunak eginda Obra, Zerbitzu, Hiri Eraberritze eta Espazio Publikoaren Sailari, edo beste sail batzuei bestelako gaiei buruzkoak direnean.
 
- ▶ Udalaren web orrian: **www.bilbao.eus**, "zure Udalak aditzen dizu" atalean.
 
- ▶ Udalaren "010" informazio-telefonoan.
 
- ▶ Udalaren erregistroaren bulegoetan.
 

Bada jarduerarik ezin zaionik argi eta garbi proposamenik aurkeztu?

Bai. Besteak beste, ezin da arlo hauei buruzko proposamenik aurkeztu:

- ▶ Langileak kontratazeko gastuak.
- ▶ Enpresen edo autonomoen kontratazioa, lanak egiteko eta zerbitzuak emateko.

- ▶ Diru-laguntzak eta bestelako laguntzak familiei, irabazi asmorik gabeko erakundeek, fundazioei eta enpresa pribatuei.
- ▶ Bekak, sariak, laguntza benefikoak edo asistentzialak ematea.
- ▶ Diru-sarrera publikoei buruzko erabakiak.

Gerta liteke aukeratutako proposamena ez gauzatzea?

Bai. Udalaren aurrekontuan sartutako proposamenak gauzatu aurretik, aurrekontuko gainerako partidekin bezala, kontrol eta azterlan gehigarriak egingo dira. Aurrekontuen proiektuan sartu aurretik proposamena aztertu arren, gerta daiteke azken tramite honetako azterlan gehigarrian lehen aurkitu gabeko oztopoak agertzea. Horrela gertatuz gero, informazio hori web orrian argitaratuko da.

Zelan jakin proposamenak gauzatuko diren ala ez?

Behin aurrekontuak onartuta, www.bilbao.eus-en argitaratuko dira, "Parte-hartze bidezko Aurrekontuak" atalean. Euren jarraipena egin ahal izango da, Udalaren web orrian aldian-aldian argitaratzen diren aurrekontuen betearazpenari buruzko txostenen bidez.